



Idazleak urtebete eman zuten Renon (Nevadan) eta hiriko unibertsitatea den UNR-en klaseak eskaini zituen.

## ESTREINALDIA

JON KORTAZAR



## Txepetxari erruki


'Nevadako egunak' Bernardo Atxagaren liburua irakurtzen

**A**spaldiko paperak arakatzeko ari nin-tzela hara non heltzen zaidan eskuetara Bernardo Atxagaren (1951) poema-ustez-argitaragabe baten kopia, eskuz ida-tzia eta artikulua hau sinatzen duen honi eskainia. Emily Dickinson aipatzen da izenburuan, eta, egile eskubideak ez urratze alde, ez dut hemen emango. Baina bertso batean, txepetxa kontsolatu nahi lukeela esaten du, eta txepetxari errukia zor diola. 'Nevadako egunak' irakurtzerakoan iruditu zait Bernardo Atxagaren maisu lanaren aurrean gaudela, eta, orrialdeak gozatzen nituen artean, bere buruaren sinbolo gisa irakurri nahi izan dut txepetxa, eta liburua bera den txepetxari erakutsitako errukiaren adibide ederra iruditu zait. Bere buruaren aurrean kokatu da Bernardo Atxaga, kronikatik baino gehiago autobiografiatik duen liburu horretan. Egunerokoaren moldeak aukeratzeko askatasun handia lortu du egileak, edozer eta edozertaz hitz egiteko. Gogorra etorri zait, Pott bandaren desagerpenaren ondoren, Arantzazuko kalenderen antzeko egutegi literarioak – eta laikoak – atara zituela Bernardo Atxagak. Orrialde bakoitzaren atzealdean, ezusteko handiak ageritzen ziren: poemak, prosa txatalak, itzulpenak...

'Nevadako egunak' honean ere denetarik dago gordea, egunen gurgpilean. Eguna zabaldu, orrialdeari tira egin eta idazle handiaren itzala agertzen da edonon: familia kontuak kontatzen dituenen, bi-

daien berri ematerakoan, postalak deskribatzerakoan, edo Paulino Uzcudunen berri azaltzen duenean, kronika ematen duen berria, baina testuan bertan kontakizun gisa definitzen dena; beraz, autobiografiatik fikziora pasatzen den arte. Zubi lan hori liburua erdi aldean nabaritzen da; hasieran, zein egunetan gertatu den ekintza adierazten da (kontuan har bedi, abuztuaren 20tik urtarrila arte, liburua dituen 439 orritik 278 betetzen dituela, herena baino gehiago), baina otsailetik aurrera ez dago datarik eta fikzioak hartzen du toki nagusia. Hortik aurrera edozer gauza izan daiteke aipagai, idazketa gai eta egilearen eskuetan fina zena, ezereza ia, literaturaz jantzirik agertzen da.

Eskertu behar zaio Bernardo Atxagari bere burua arriskuan jartzeko agertu duen ezinegona, beti ere gehiago eskatuz bere lumari. Liburuan badago puntu berezi bat egunerokoaren ordean, fikzio baten aurrean gaudela sumartzeko: aukeraturiko pertsonaia kopurua, hain zuzen ere. Unibertsitateko lankide gutxi batzuek sortzen dute inpresio hori: egunkari batean, askoz gehiago izan ohi dira pertsonaiak. Liburuan Atxagak ohi duen bezala, pertsonaia mugatuak biltzen ditu inguruan, familia, eta unibertsitate saileko laubost pertsonaia. Ugariagoak dira, bai agerpen txikia dutenak, baina talde txikia lehen eszenan daudenak.



Irudian, Reno hiriko erdialdea, amerikarrek 'downtown' bezala ezagutzen dutena. :: REUTERS

'Nevadako egunak' liburuan nabari da kontalariaren begirada aratza, baina ez da teknika hori nagusia, hori baino gehiago, eta horren sakonean, hausnarketa agertzen da gauzei, iritziei eta arazo existentzial eta pertsonalei buruz, eta hausnarketa eman dio liburuari duen karga sinbolikoa. Lau gai nagusik kiribiltzen dute historia: Izadiaren ikusmenak, Estatu Batuetako gizartearen deskribapenak (Obama eta Hillary Clintonen mitinek barne), beldurraren agerpenak ('Gizona bere bakardadean' liburuan bezala) intriga polizikoa sortuko duena eta puntu bitan agertu duena, alabarekiko beldurrean eta armadaren

presentziari emandako garrantzian, eta gurasoen heriotza, amarenari toki berezia emanaz, ezaguna bazen ere lehendik argitaratua zelako.

'Nevadako egunak' Bernardo Atxaga osoaren ispilua da. Hemen dira gogoko izan dituen gaiak: gizarte baserritarren eta globalaren artean kokatu duen euskaldunaren irudia, Paulino Uzcudunena; patu gogorra jasango duen Francisco Javier ume autista eta bere lehengusuaren axolarik eza; gai horri buruz hausnarketa hotzikarazkoa, Eros eta Thanatosen artean mugitzen den kontzientzia baten agerpena; haur basatiaren historia; asko pentsatu gabe,

txantxetan bezala, krudelkerian jausiko diren gazte korrikalarien kontakizuna; kontalariaren haurtzaroko gurasoen sufritu zuten egoera latza. Hemen dira maite dituen teknikak. Pop munduaren agerpena, bai abestien eta musika taldeen aipuetan, bizitzak bere soinu banda beharko balu bezala, bai zinematik ateratutako irudietan, eta batez ere literatura munduak ematen dion almatzen erraldoitik harturiko bidean. Eta hemen hain gogoko dituen estilo arriketak. Bere mundu literario eta etikoa hemen dagoela esan dezakegu. Animaliak, mapatxeak eta hontzak, hitz egiten dute 'Bi anai' nobelan

bezala; Francisco Javierren irudia 'Obabakoak' liburuak osaturiko mundutik dator, eta ez da isla bakarra; amaiera faltsuen teknika (zerbait kontatu ondoren horrela gertatu ez zela baieztatzeko) 'Soinujolearen semea'n ere erabili zen. Boxeolarietako interesa aspaldi erakutsi zuen, 'Pott' aldizkariaren garaian. Dena dela, bai trama polizikoaren bidea aukeratu duelako, eta baita jatorrien deskribapenetan jarritako arretagatik ere testuak 'Gizona bere bakardadean' gogorazten dit. Eta Nevadako edo Ameriketako interesa 'Bi letter' hartan jaio bazen ere, 'Soinujolearen semea'n erne zen.

## Egunkaria

'Nevadako egunak' egunkari bat ere bada. Eta egunkariak gustuko ditudala esango banu ez nuke sekreturik azalduko. Andrés Trapiellorenak maite ditut, adibidez, eta horretan ere denetarik sartzen ditu egileak. Liburu bada, «gauza asko hartzen dituen zakua da», eta neurri horretan da nobela, nobela ere «gauza guztiak kabitzen diren zakua» baita. Eguneroko kronika egiterakoan ere fikzio joera handia dago eta zail izango zaigu zein den zein aukeratzea. Adiskide batek aipatu zidan zein gustura irakurri zuen Thanksgiving day-ko afariaren kontaketa. Laudatu zuen: «Ez da ezer gertatzen, eta ezin duzu irakurketa utzi». Baina bai gertatzen dela zerbait afari horretan. Etxeko jabeak, Mannixek, gai bakarra jartzen die gonbidatuei: maite dituzten usainez hitz egin behar dute, eta zergatik maite dituzten azaldu. Froga bat jarri die, lehiaketa literarioa azken finean, eta zergatia azaltzerakoan bakoitzak bere izaera utziko du agerian. Aitorpena.

'Nevadako egunak': Bernardo Atxagaren liburu pertsonalena, biluziena. Txepetxari zor dion errukia.